



**2023KO OTSAILAREN 27KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko otsailaren hogeita zazpian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide eta Joxemai Ormazabal Sukia.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2023ko otsailaren 6an egindako bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2022ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 86 zenbakidun fakturen zerrenda, HAMA ZAZPI MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA BAT euro ETA HIRUROGETIA HAMA IKA zentimokoa (17.761,71 €) eta 2023ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 5 zenbakidun fakturen zerrenda, HOGEITA HAMABI MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMASEI euro ETA BI zentimokoa (32.336,02 €), bere espedientean daudenak, onartzea erabaki da.

III.- PARROKIA ETA IKASTOLAREN ARTEAN AGAUNTZA ERREKAREN GAINEAN OINEZKO PASABIDEA OBRAREN 5. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Parrokia eta Ikastolaren artean Agauntza erreKaren gainean oinezko pasabidea obraren obra zuzendaritza daraman Amaia Salaberria Azantza bideetako ingeniariak, Salaberria Ingenieritza S.L. enpresakoak, lanen bosgarren obra egiaztagiria egin du. Bosgarren obra egiaztagiri honen zenbatekoa LAUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU euro ETA BI zentimo (474,02 €) gehi BEZARI dagokion LAUROGEITA HEMERETZI euro ETA BERROGEITA HAMALAU zentimo (99,54 €) eta guztira BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIRU euro ETA BERROGEITA HAMASEI zentimo (573,56 €).

Obra ziurtagiri honek udal teknikariaren oniritzia du.

Ormazabal zinegotzia (EH Bildu) abstenitu egin da proiektuarekin bat egiten ez dutelako.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aldeko 3 botorekin (EAJ), aurkako boto-rik gabe eta abstentzio batekin (EH Bildu), bosgarren obra egiaztagiri hau onartu egin du.

IV.- INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOEN MANTENTZE ETA KONPONKETA ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA: LIZITAZIORA AURKEZTUTAKO ENPRESEN EZOHIKO ESKAINTZA BAXUEN JUSTIFIKAZIOAREN AURREAN, KONTRATAZIO MAHAIAREN PROPOSAMENA.-

Instalakuntza elektrikoaren mantentze eta konponketa zerbitzuaren kontratazio mahaia 2023ko otsailaren 10ean bildu zen, ustez balio anormalak edo neurritz kanpokoak dituztelako, beren eskaintzak justifikatzeko eskaera egin ondoren, LOYOLA NORTE S.A. eta ELECENOR S.A.U. enpresek aurkeztutako dokumentazioa baloratzeko.

Dokumentazioa aztertu ondoren, kontratazio mahaiak kontratazio organoari ELECENOR S.A.U. enpresa lizitazio prozeduralik bazterlezea eta LOYOLA NORTE S.A. enpresa lizitazio prozeduran onartzea proposatu dio.

Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, ELECENOR S.A.U. enpresa lizitazio prozeduratik baztertea eta LOYOLA NORTE S.A. onartzea erabaki du.

V.- GIPUZKOAKO EROSKETA ZENTRALAREN BIDEZKO KONTRATAZIOA, BEROKUNTZA INSTALAZIOEN MANTENUA.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakinarazi du, eraikinetan berokuntzaren eta ur bero sanitarioaren instalazioak mantentzeko zerbitzua kontratatzeko, kontratazio espedienteari hasiera ematera doala esparru akordioaren prozedura bidez.

Kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari abikitzeke hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek zerbitzu honen kontratazioa behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin zera erabaki du:

1.- Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak eraikinetan berokuntzaren eta ur bero sanitarioaren instalazioak mantentzeko zerbitzua kontratatzeko hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.

2.- Enpresa esleipendunarekin kontratu eratorria izenpetzeko konpromisoa hartzea, aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.

VI.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-



Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-



LAZKAOKO UDALA

- 19-11-04 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua ordubete murriztea otsailaren 1etik aurrera, onuradunek hala eskatuta. Onuradunaren ekarpena % 100ekoa izango da.
- 23-11-01 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea urtarrilaren 30ean eta baja ematea otsailaren 6an, astelehenetik ostiralera egunero ordu terdi laguntza pertsonalerako. Onuradunaren ekarpena % 61ekoa izango da.
- 19-11-08 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea urtarrilaren 30ean heriotzogatik.
- 22-11-07 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea otsailaren 2an heriotzogatik.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 21-01-009 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea urtarriletik otsailera eta hilean 150 € ematea martxotik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 23-01-003 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5 € ematea urtarriletik ekainera eta alokairu gastuetarako hilean 250 € ematea urtarriletik ekainera. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 22-01-011 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 68,45 € ematea urtarrilean eta alokairu gastuetarako hilean 185 € ematea urtarrilean. Eman daitekeenaren % 74 da.
- 17-01-009 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 79,55 € ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 86 da.

VII.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu du:

Gidabaimena euskara hutsean ateratzeagatiko dirulaguntza.-

2023. urtean autoa edo motorra gidatzeko baimena euskara hutsean ateratzeagatik dirulaguntzak ematea. Lau ikasle izan dira, bere espedienteetan dauden datuen arabera, eta guztira 400 € emango dira, bakoitzari 100€ dagozkiolarik.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2022ko aurrekontuaren 1 481.02.335.00 partidatik.

Euskara ikasten ari direnei.-



LAZKAOKO
UDALA

2022/2023 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bakarra izan da eta emango zaion kopurua 252 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2023ko aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

VIII.- LANDALURREKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa lurreko batzordetik dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako hau erabaki du:

Antsoategi elkarteari.-

2023ko urtarrilaren 8an, Astotxo egunez, Enkarterrietako asto arrazaren erakusketa eta lehiaketa antolatu zuelako eta ekitaldi honetako gastuak kitatzeko eta amaitzeko 1.000 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 481.08.334.01 partidatik egingo da.

Lazkaoko baserritar ekoizleei.-

Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko maiatzean martxan jarritako eresketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei hamai-kagarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

Baserritarra	Zenbatekoa
IZTUETA ELKARTEA SC	85 €
GUZTIRA	85 €




**LAZKAOKO
UDALA**

Ordainketa aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik egingo da.

IX.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kirol eta gazteriako zinegotziak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, ano batez, honakoa erabaki du: aurrekontuetan kirol talde desberdinek urteko ohiko funtzionamendu eta egitasmoak diruz laguntzeko izendatuta dauden dirulaguntzetatik, lehen zatia, hau da, %60, ematea.

Ondorengoa da onartu diren dirulaguntzen zerrenda:



LAZKAOKO
UDALA

Kirol elkarteak	Lehen ordainketa (%60)
Lazkao Kirol Elkarteak	8.100 €
Goierri Gorri Kirol Kluba	2.700 €
Lazkao Antzar Pilota Kirol Elkarteak	1.200 €
Antzar Korrikalariak Kirol Kluba	750 €
Amalur Mendi Elkarteak	600 €
Txindoki Atletismo Taldea	480 €
Ordizia Igeriketa Taldea	720 €
ORLOIJ Txirrindularitza Bultzatuz Elkarteak	480 €
San Benito – Saskibaloia Taldea	600 €
Lazkao Aretoa Futbol Taldea	720 €

X.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galdera edota erregurik egon.

XI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko seiak eta bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

